BALITEKE MATEMATIKARIK GABEKO GIZARTE KULTOA?

2000-2001 ikasturteari hasiera emateko hitzaldia

Javier Duoandikoetxea Doktore (*)

2000. urtea, urte berezia da, mende amaiera guztiek duten mugarri itxura horrekin, milurte amaiera direnean areagotua. Baina ez dago berezia egiten duen arrazoi naturalik, geuk egin dugun jatorriaren aukerak eta kontatzeko erak -hau da, zenbakien sistemak- ematen diotenaz aparte. Zenbakiek egiten dutelako desberdin agian, *Matematikaren urtea munduan* ospatzeko aukeratu zuten.

Matematikaren Nazioarteko Elkarteak egin zuen ospakizunerako deia 1992an eta hiru helburu jarri zizkion:

- XXI. mendeko erronka nagusiak zehaztu,
- matematika garapenerako gakotzat aldarrikatu, eta
- matematikak informazioaren gizartean duen irudia hobetu.

1997an UNESCOren Biltzar Nagusiak izendapena lagundu eta babestu egin zuen eta, besteak beste, hezkuntza sistemaren maila guztietan trebakuntza matematikoak duen oinarrizko zeregina nabarmendu zuen.

Kongresu eta bilerak, hitzaldi zikloak, erakusketak, liburuak, artikuluak eta komunikabideetan ohikoa den baino agerpen handiagoa dira urteko ekitaldien erakusle, gure inguruan ere islatuta gelditu denez.

Eskerrak eman gura dizkiet Errektoreari eta bere taldeari Matematikaren urtearen ospakizuna kontuan hartu eta hasierako hitzaldia berari eskaintzeagatik. Ohorea eta ardura da niretzat hitzaldia emateko aukeratua izatea, aldi berean unibertsitateko matematika irakasleen ordezkari ere sentitzen naizelako nolabait, esango dudanaren erantzunkizuna neure gain bakarrik gelditzen den arren.

(*) Analisi Matematikoko Katedraduna

¿ES POSIBLE UNA SOCIEDAD CULTA SIN MATEMÁTICAS?

LECCIÓN INAUGURAL DEL CURSO ACADÉMICO 2000-2001

D. JAVIER DUOANDIKOETXEA (*)

(Agradecemos al Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco el habernos cedido este material, publicado en su servicio editorial).

El año 2000 es un año especial, con ese aspecto fronterizo que tienen los finales de siglo y más aún si lo son de milenio. Pero no hay ninguna razón natural para ello, es una característica que se debe solamente a nuestra elección de un origen y una manera de contar, es decir, a un sistema de numeración. Quizá porque son los números los que lo hacen diferente, fue elegido para celebrar el *Año Mundial de las matemáticas*.

La convocatoria fue hecha por la Unión Matemática Internacional en 1992 y se propusieron tres objetivos:

- fijar los retos principales del siglo XXI,
- proclamar la matemática como clave del desarrollo, y
- mejorar la imagen de las matemáticas en la sociedad de la información.

En 1997, la Conferencia General de la UNESCO dio su apoyo y patrocinio a esta celebración haciendo notar, entre otras cosas, el papel fundamental de la formación matemática en todos los niveles de la enseñanza.

Congresos y reuniones, ciclos de conferencias, exposiciones, libros, artículos y una presencia en los medios de comunicación más abundante de lo habitual están marcando la actividad de este año, como también se ha visto reflejado en nuestro entorno.

Quisiera agradecer al Rector y a su equipo que hayan tenido en cuenta la celebración del Año mundial de las matemáticas y decidido dedicarle esta lección inaugural. Es para mí un honor el haber sido elegido para impartirla, y a la vez una responsabilidad porque de algún modo me siento representante de mis compañeros profesores de matemáticas. En todo caso, soy el único responsable de las opiniones que pudiera expresar.

(*) Profesor de la UPV.
Departamento de Matemáticas

Zergatik uste dugu matematika garrantzizkoa dela?

Duela laurehun urte baino gehiago Pedro Simón Abril humanistak idatziriko hitz batzuk erabiliko ditut erantzuteko. Berrogei urtez irakasle ari izan eta gero, 1589. urtean, txosten bat zuzendu zion errege Felipe II.ari, hezkuntzan nabaritu zituen kalteak zuzentzeko asmoz. Txostenaren izenburua Apuntamientos de cómo se deben reformar las doctrinas(1) da (ikasketa plangintzak esango genuke gaur) eta hona hemen matematikaz zer zioen*:

Matematiketako okerrei buruz

> Matematiketan ezin izan da ustelkeriarik gertatu, benetako frogapen etan oinarritzen diren doktrinak izanik, zentzuaren eta eskarmentuaren arabera eginak, eta iritzi eta usteen aniztasunerako ezgauza direnak. Baina honen tamainako beste zorigaizto bat etorri zaie gainera, handiagoa ez bada; ez izanik dirua irabazteko doktrinak eta bai adimena goratzeko, ikasten dutenak, interesari begiratzen diotelarik benetako doktrinari baino gehiago, eurak ukitu gabe pasatzen dira. Eta hortik kalte handia datorkio errepublikari eta, bereziki, Berorren Maiestatearen zerbitzuari, matematika ez ikastetik baitator eskas izatea gerraren gauzetarako ingeniariak, nabigazioetarako pilotuak, eta eraikuntza eta gotorlekuetarako arkitektoak, hau guztia errepublikaren kalte handirako eta erregearen maiestatearen dezerbitzurako eta nazio osoaren irainerako baita, ingenioen kontuetan beti nazio arrotzetara joan behar baitu bila, ogasun publikoari galera larria ekarriz.
>
> Matematikek ez balituzte ere beren baitan -eta badituzte- hainbeste onura eta probetxu eta hain handiak, ez balute beste onik egingo ez bada gizonen adimenak ohitu gauzetan egia sendo eta seguruak bilatzen, iritzien aldakortasunagatik kulunka ibiltzen utzi gabe, honek suntsitzen baititu gehien doktrinak, onura honegatik bakarrik ez litzaieke gizonei utzi behar ezein zientzia motatara pasatzen aurretik doktrina matematikoak ikasi gabe; horrela sentitu baitzuen Platonek bere akademiaren sarreran txartel bat ipini zuenean, matematikarik ez zekienari ez sartzeko esanaz. Eta horrela sentitu zuen Aristotelesek ere, beste zientzietan matematiken adibideak baitakartza, eta ez zuen hau egin ez bada aurretik onartuta mutikoek jakingai matematikoak ikasi behar dituztela beste gauza guztien aurretik.
>
> Kalte larri hau erraz konponduko du Berorren Maiestateak matematikak herri hizkuntzan irakats ditzatela aginduz, Gortean horretarako duen eskolan ezarrita duen bezala, eta dekretatuz unibertsitate eta eskola publikoetan ez dezaten inor onartu ezein gradu motatara ez badu lehenago erakusten ondo ikasi dituela jakingai matematikoak".

Gaur egun berbak aldatuko genituzke, estiloa ere bai, baina mamia ez. Argi dioenez Simón Abrilek arrazoi bi daude matematikaren garrantzia bermatzeko: formazio orokorrerako balioa, batetik, eta hainbat ofiziotan ezinbestekoa izatea, bestetik.

1. Matematika kultura da

Ez gara eztabaidatzen hasiko ea matematika, edo zientzia orokorrean , kultura den ala ez, ez baitu inork ukatuko, hala uste dut behintzat. Baina unibertsitate-errektore batek (ez gureak) "matematikaz ezer ere ez dakiela" esanez kongresu bat zabaltzen duenean, kulturatzat eta kultura beharrezkotzat zer hartzen den aldea dagoela onartuko didazue behintzat. Beste zein gaitaz aldarrika daiteke ezer ez jakitea eta hala ere 'kultoa" izaten jarraitu? Dirudienez, batzuentzat matematika albo batera geldi daitekeen kulturaren parte da. (Ez dut esan barik

¿Por qué creemos que la matemática es importante?

Responderé con las palabras que escribió hace más de cuatrocientos años el humanista Pedro Simón Abril. Tras cuarenta años de docencia, en 1589, dirigió al rey Felipe II un informe titulado *Apuntamientos de cómo se deben reformar las doctrinas*[1] (hoy diríamos planes de estudio) con la intención de corregir los defectos que había observado en la educación. Esto es lo que decía de las matemáticas:

> **De los errores en las matemáticas**
>
> " En las matemáticas no ha podido caber depravación por ser doctrinas que consisten en verdadera demostración, hecha al sentido y experiencia, y no capaces de diversidad de opiniones y de pareceres. Pero hales caído otra desventura tan grande como ésta, si ya no es mayor, que por ser doctrinas que no son para ganar dinero, sino para ennoblecer el entendimiento, como los que estudian tienen más ojo al interés que a la verdadera doctrina, pásanse sin tocar en ellas. De donde viene gran daño a la república y particularmente al servicio de V. M., pues de no aprenderse matemáticas viene a haber gran falta de ingenieros para las cosas de la guerra, de pilotos para las navegaciones y de arquitectos para los edificios y fortificaciones, lo cual es en gran perjuicio de la república y deservicio de la majestad real y afrenta de toda la nación, pues en materia de ingenios ha de ir siempre a buscarlos a las extrañas naciones, con daño grave del bien público.
>
> Aunque las Matemáticas no tuvieran en sí, como los tienen, tantos y tan grandes bienes y provechos, no hicieran otro bien sino habituar los entendimientos de los hombres en buscar en las cosas la verdad firme y segura y no dejarse bambolear de la inconstancia de las opiniones, que es lo que más destruye las doctrinas, sólo por este bien no se les había de permitir a los hombres pasar a ningún género de ciencia sin que aprendiesen primero las doctrinas matemáticas, que así lo sintió Platón cuando puso un rótulo en la puerta de su academia diciendo que no entrase allí el que no supiese matemáticas. Y así también lo sintió Aristóteles, pues en las demás ciencias trae ejemplos de las matemáticas, lo cual él no hiciera sino presuponiendo que los mancebos deben aprender ante todas las cosas las disciplinas matemáticas.
>
> Este daño tan grave remediará fácilmente Vuestra Majestad mandando que las matemáticas se enseñen en lengua vulgar, como ya lo tiene dispuesto en la escuela que en su corte tiene hecha para ello, y haciendo decreto que en las universidades y escuelas públicas ninguno sea admitido a ningún género de grado sin hacer primero demostración de cómo ha estudiado muy bien las disciplinas matemáticas".

Hoy cambiaríamos las palabras y el estilo, pero no lo esencial de su contenido. Como muy bien dice Simón Abril, hay dos razones que avalan la importancia de las matemáticas: su valor formativo, por un lado, y el ser imprescindible en algunos oficios, por otro.

1. La matemática es cultura

No vamos a discutir si la matemática, o la ciencia en general, es cultura o no, porque creo que nadie lo va a negar. Pero cuando un rector de Universidad (no de ésta) inaugura un congreso diciendo que "no sabe nada de matemáticas", estarán de acuerdo conmigo en que hay alguna diferencia entre lo que se considera cultura y lo que se considera cultura necesaria. ¿De qué otros temas puede uno proclamar su ignorancia y pretender seguir siendo "culto"? Parece que la matemática pertenece para algunos a esa parte de la cultura de la que se puede utziko ifrentzua ere baduela jarrera honek.) Kontua da urteak joan, urteak etorri, oraindik ere zientzien eta letren mundua, "kultura biak", behar baino urrunago daudela.

1862. urtean argitaratu zen Victor Hugoren *Les Misérables* izeneko eleberri ospetsua. Zortzi liburukik osatzen dute lehen zatia eta hirugarrena *1817. urtean* deitzen da. Urte horren deskribapena egiterakoan honela dio pasarte batek:

> "Zientzi Akademian Fourier ospetsu bat zegoen, etorkizunak ahaztu duena, eta auskalo zein ganbaratan Fourier ilun bat, geroak gogoratuko duena".

Lehena, Jean Baptiste Joseph Fourier, matematikari eta fisikaria, beroaren hedapenaren gainean egindako lanengatik da ezaguna; bigarrena, Charles Fourier, soziologo eta filosofoa, *Batasun unibertsalaren Teoria* baten egilea. Hugoren lanaren komentatzaile batek ehun urte geroago hauxe idatzi zuen: "ez dago zalantzarik geroak hobeto gogoratzen duela Charles Fourier, Joseph Fourier baino"[(2)]. Ez nago ados. Ez dago zalantzarik Charles Fourier pertsonaia ospetsua dela gizarte zientzietan, baina zientzilari eta teknikarien artean Fourier oso izen famatua da , Josephi esker.

Egoera horrek gogora ekartzen dit Umberto Eco idazleak *Foucaulten pendulua* eleberria argitaratu zuenean egunkari ezagun bateko kritika hasten zela azaltzen izenburuko Foucault hura ez zela Michel Foucault filosofo eta historialaria, irakurleak uste zezakeen moduan, baizik eta XVIII. mendeko fisikari frantziar bat, Léon Foucault, Lurraren errotazioa frogatzeko Pariseko Panteoian pendulu bat eskegi zuena. Formazio zientifikoko irakurlearentzat oso argi zegoen izen burua, baina onartzen dut jende askorentzat abisua egokia eta beharrezkoa izan zitekeela.

Euclides (siglo V a.C.)
Euklides (K.a. V mendea)

Izenkidetasuna oinarri duten adibide bitxi hauek ekarri ditut kultur arazoetan sarritan alde bakarrera begiratzen dugula erakusteko balio dutelakoan.

Matematika kultura da baina askok ikusten du emaitza eta teknika multzo bat bezala, pertsonen partehartze barik. Irakaskuntzak ere bere errua du; baldintzak, teoremak eta frogapenak kateatzen ditugu eta ematen du ez dagoela aukerarik, hain dela dena perfektua non ezin den gizakiaren obra izan. Baina ez da horrela. Beste edozein giza jardueraren moduan sortu, hazi, aldatu, berritu eta eztabaidatu egin da, ez da beti berdina izan. Mendez mende garatu da eta bere historia du, eta historian aro desberdinak, zein bere ezaugarriekin. Interesgarria izango delakoan, ibilbidearen laburpena egingo dut.

prescindir. (No dejaré sin señalar que también existe la otra cara de la moneda.) El caso es que los años pasan y el mundo de las ciencias y el de las letras, las "dos culturas', siguen más alejados de lo que deberían.

En 1862 se publicó la conocida novela de Victor Hugo *Les Miserables*. La primera parte consta de ocho libros de los que el tercero lleva por título *"En el año 1817"*. Dice uno de los párrafos en los que describe dicho año:

> "Había en la Academia de Ciencias un Fourier célebre a quien la posteridad ha olvidado y en no se qué desván un Fourier oscuro de quien el futuro se acordará".

El primero, Jean Baptiste Joseph Fourier, matemático y físico, es conocido por sus trabajos sobre la propagación del calor; el segundo, Charles Fourier, sociólogo y filósofo, fue el autor de una *Teoria de la unidad universal*. Un comentarista de la obra de Hugo escribía cien años después: "no hay duda de que la posteridad recuerda mejor a Charles Fourier que a Joseph Fourier"[(2)]. Pues no estoy de acuerdo. No hay duda de que Charles Fourier es un personaje famoso en las ciencias sociales, pero para los científicos y técnicos el nombre de Fourier es muy popular, gracias a Joseph.

Es una situación que me recuerda a cuando el escritor Umberto Eco publicó su novela *El péndulo de Foucault* y la crítica de un conocido periódico comenzaba aclarando que el Foucault del título no era el filósofo e historiador Michel Foucault, como posiblemente el lector había pensado, sino un físico francés del siglo XVIII, Léon Foucault, que colgó un péndulo en el Panteón de París para probar la rotación de la Tierra. Para un lector con formación científica el título estaba muy claro, aunque reconozco que para mucha gente el aviso podía ser útil y necesario.

Arquímedes (siglo III a.C.
Arkimedes (K.a. III mendea)

Traigo estos curiosos ejemplos basados en la homonimia de los personajes simplemente como muestra de que en cuestiones de cultura muchas veces miramos a un solo lado.

La matemática es cultura, pero mucha gente tiene la impresión de que es un conjunto de resultados y técnicas sin intervención de personas. La enseñanza también tiene su culpa; encadenamos condiciones, teoremas y demostraciones como si no hubiera elección y queda todo tan perfecto que no puede ser obra humana. Pero no es así. Como cualquier otra actividad humana ha nacido, crecido, cambiado, se ha renovado y discutido, no siempre ha sido igual. Se ha desarrollado a lo largo de los siglos, tiene una historia con sus distintas edades, cada una con sus propias características. Creo que puede ser interesante hacer un resumen de su recorrido.

Greziar kulturaren aurreko zibilizazioetan aurki daitezke matematikaren lehen zantzuak. Haien ezagutza heldu zaizkigun hondarrekin saiatu behar dugu zehazten, arkeologoen antzera. Historiaurrea da nahiz gizakiaren aro historikoan gertatu.

Matematikaren Antzin Aroa grekoekin hasi zen. Miletoko Tales, Greziako zazpi jakintsuetako bat, izen ezaguna duen lehen matematikaritzat hartzen da; Kristo aurreko VI. mendean bizi zen. Mende bat geroago Samosko Pitagoras aurkitzen dugu, batzuk "teorema" hitzari ezinbestean lotzen dioten izena. Badakigu Crotonen (Calabria) eskola izan zuela eta pitagorikoek emaitza sakonak lortzeko gauza izan zirela, zenbaki arrazionalak (zenbaki osoen zatikiak) luzera guztiak adierazteko nahikoa ez direla, esate baterako.

Los "Elementos" de Euclides en latín

Filosofiaren garapenak eraginda, greziar matematikak gaur egun harrigarri izaten jarraitzen duen heldutasun maila lortu zuen eta Alexandriako Euklidesek Kristo aurreko N. mendean idatzitako Elementuak dira horren erakusle. Garaiko ezaguera matematikoa sistematikoki bildu eta era logiko-deduktiboan aurkeztu zuen, gaur egun egiten dugun moduan. Sirakusan (Sizilia) mende bat geroago Arkimedes bizi izan zen, Antzinateko zientifikorik handientzat hartzen dena. Hurrengo mendeetan oraindik puntako matematikari batzuk aurki daitezke greziar kulturan, baina erromatarren nagusitasuna zabaldu ahala egoera aldatzen hasi zen.

Kultura erromatarrak ez zuen matematikarako interes handirik erakutsi. Areago, zuzenbide erromatarrak matematika kondenatu eta debekatu egiten zuen (*ars mathe-matica damnabilis et interdicta est*) . Inperio erromatarra erori aurretik ere, matematika bere Erdi Aro luze eta ilunean sartu zen. Bertan San Agustinen moduko iritzi negatiboak gainditu beharko zituen; honek matematikari eta profeten aurrean adi egoteko ohartzen zuen jendea "arriskua baitago deabruarekin lotuta egon daitezen eta horregatik izpirituak aztoratu eta gizakiak infernuan hondora ditzaten"[(3)].

Matematikaren historia liburuetan Indian, Pertsian eta Arabian egindako ekarpenek betetzen dute aldi honen zatirik handiena. Arabiarrekin hain zuzen heldu ziren Mendebaldeko Europara orain erabiltzen ditugun zenbakiak, greziarrenak eta erromatarrenak baino egokiagoak kalkulatzeko orduan. Baina horretaz gain, matematikari greziarren lanak ekarri zituzten itzulita eta, une batetik aurrera, liburutegietan Euklidesen Elementuak ere gordetzen ziren garaiko jakintzaren artean. Unibertsitateak sortu eta liburu hori ikasgai bihurtu ahala, grekoen matematik bikain hura berreskuratzea eta, denbora emanez, gainditzea pentsa zitekeen.

Konstantinoplaren erortzeak eta Amerikaren aurkikuntzak munduaren historiari aro aldaketa ekarri zioten matematika bere Erdi Arotik irten gabe. Laster hasi zen Errenazimendua behar zen aldaketa bultzatzen baina XVII. mendeko azken herenera arte itxaron behar dugu Aro Modernoa hasten dela baieztatzeko. Hau Isaac Newton eta Gottfried Leibnizek sorturiko kalkulu

Los primeros signos de la matemática aparecen en civilizaciones anteriores a la griega. Su conocimiento se reconstruye a partir de los restos que nos han llegado igual que en arqueología. Es el periodo prehistórico aunque se sitúa en la época histórica de la humanidad.

La Edad Antigua en matemáticas empieza con los griegos. Tales de Mileto, uno de los siete sabios de Grecia, que vivió en el siglo VI antes de Cristo, es considerado como el primer matemático de nombre conocido. Un siglo después encontramos a Pitágoras de Samos, cuyo nombre muchos asocian inevitablemente a la palabra "teorema". Sabemos que tuvo una escuela en Crotona (Calabria) y que los pitagóricos fueron capaces de obtener resultados profundos como la imposibilidad de expresar todas las longitudes con sólo números racionales (fracciones de números enteros).

Euklidesen “Elementuak” latinez

Influida por el desarrollo de la filosofía, la matemática griega alcanzó rápidamente un nivel de madurez que hoy nos sigue asombrando. Así lo muestran los *Elementos* de Euclides de Alejandría, compuestos en el siglo IV antes de Cristo. Recogen sistemáticamente el conocimiento matemático de la época y lo presentan al modo lógico-deductivo, similar al actual. En Siracusa (Sicilia) vivió un siglo más tarde Arquímedes, considerado el científico más grande de la Antiguedad. Todavía en los siglos posteriores podemos encontrar destacados matemáticos en la cultura griega pero el panorama fue cambiando a medida que los romanos imponían su dominio.

La cultura romana no mostró gran interés por la matemática. Más bien al contrario, el Derecho Romano la condenaba y prohibía *(ars mathematica damnabilis et interdicta est).* Antes de la caída del imperio romano la matemática ya había entrado en su oscura y larga Edad Media, en la que tuvo que enfrentarse a opiniones negativas como la de San Agustín que prevenía contra matemáticos y profetas "porque hay peligro de que estén relacionados con el diablo y, por esa razón, turben los espíritus y hundan a los hombres en el infierno"[(3)].

En los libros de historia de la matemática la mayor parte de este periodo se cubre con aportaciones de India, Persia y Arabia. Fueron precisamente los árabes quienes trajeron a Europa Occidental los números que ahora utilizamos, más adecuados para el cálculo que los de griegos y romanos. Pero además trajeron las obras de los matemáticos griegos en sus traducciones y los Elementos de Euclides acabaron por ocupar un lugar en las bibliotecas entre el saber de la época. A medida que se creaban universidades y este libro se convertía en materia de estudio, se podía por fin pensar en recuperar la excelente matemática griega y, con el tiempo, superarla.

La caída de Constantinopla y el descubrimiento de América marcaron un cambio de época en la historia del mundo sin que las matemáticas saliesen de su Edad Media. Pronto el Renacimiento empezó a dar impulso al cambio, aunque habrá que esperar hasta el último infinitesimalarekin gertatu zen. Shakespeare eta Cervantes berrogeita hamar urte lehenagotik hilda zeuden eta Axularren Gero, euskal literatura berantiarraren erreferentziako liburua, hogei urte baino gehiagokoa zen.

XVII. mendean izen nabarmenak aurkitzen ditugu: Keplerek planeten higiduraren legeak utzi zizkigun (aurreko mendearen erdialdera Kopernikok Eguzkiaren inguruan biraka "ipini" baitzituen), Descartesek ekuazio algebraikoak kurbei lotu zizkien eta Fermatek zenbakien teoria modernoa sortu zuen, kalkuluaren aitzindari izateaz gain. Baina denen artean Newtonek merezi du aipamen berezia.

Pierre de Fermat (1601-1665)

Zientzilari aparta izan behar da higiduraren oinarrizko legea formulatzeko, *indarra = masa x azelerazioa*, grabitate-indarraren adierazpena emateko eta lortzen den ekuazio diferentziala ebaztea posible egiten duen kalkulu infinitesimala sortzeko. Hori guztia egin zuen Newtonek 1666ko *annus mirabilis* hartan eta 1687an argitaratu zuen *Philosophiae Naturalis Principia Mathematica* liburuan, inoiz literatura zientifikoan egon den lanik gorenetakoa[4]. Kepleren legeak behaketen ondorio izatetik ekuazioetatik ateratzera pasatu ziren. Kalkulu infinitesimalaren arrakasta itzela izan zen eta fisikaren beste arlo batzuetara zabaldu zen; honenbestez, matematika fisikaren hizkera bihurtu zen betiko eta arrazoi eman zien hainbat bider entzun ditugun Galileoren hitzei "unibertsoaren liburua hizkera matematikoz idatzita dago"[5].



PHILOSOPHIÆ
NATURALIS
PRINCIPIA
MATHEMATICA.

Autore JS. NEWTON, Trin. Coll. Cantab. Soc. Matheseos Professore Lucasiano, & Societatis Regalis Sodali.

IMPRIMATUR.
S. PEPYS, Reg. Soc. PRÆSES.
Julii 5. 1686.

LONDINI,
Jussu Societatis Regiæ ac Typis Josephi Streater. Prostat apud plures Bibliopolas. Anno MDCLXXXVII.

"Philosophiae naturalis. Principia mathematica" Isaac Newton

Hemen jartzen dute batzuk "kultura bien" arteko betiko banantzea, filosofia naturalak -hau da, fisikak- aurrerantzean hartu zuen itxura teknikoak filosofoak gainditu zituelakoan. Gainera aldatu egin zuen matematikaren eginkizuna aplikazioetan, orain prozesu baten bilakaera aztertzeko ere balio baitzuen, hau da, igartzeko eta ez bakarrik deskribatzeko, ordura arte izan zen moduan. Baliteke San Agustin zuzen egotea matematikariak eta igarleak nahastuz.

tercio del siglo XVII para poder afirmar que comienza la Edad Moderna con el descubrimiento del cálculo infinitesimal por Isaac Newton y Gottfried Leibniz. Shakespeare y Cervantes habían muerto cincuenta años antes y hasta el *Gero* de Axular, obra de referencia de la tardía literatura vasca, tenía ya más de veinte años.

En el siglo XVII hay ya nombres destacables como Kepler con sus leyes del movimiento de los planetas (que Copérnico había "puesto" girando alrededor del Sol a mediados del siglo anterior), Descartes ligando ecuaciones algebraicas a las curvas y Fermat, creador de la moderna teoría de números y pionero del cálculo, pero entre todos ellos es Newton quien merece una mención especial.

Isaac Newton (1613-1727)

Hay que ser un cientifico excepcional para formular la ley fundamental de la dinámica, *fuerza = masa x aceleración*, dar la expresión de la fuerza gravitatoria, y producir el instrumento matemático capaz de resolver la ecuación diferencial resultante. Todo esto lo hizo Newton en su *annus mirabilis* de 1666 y lo publicó en 1687 en su *Philosophiae Naturalis Principia Mathematica*, una de las obras cumbre de la literatura científica de todos los tiempos[4]. Las leyes de Kepler pasaron de ser consecuencia de la observación a deducirse de las ecuaciones. El éxito del cálculo infinitesimal fue enorme y se extendió a nuevas áreas de la física con lo que la matemática se convertía en el lenguaje de ésta para siempre dando la razón a las tan a menudo repetidas palabras de Galileo "el libro del universo está escrito en lenguaje matemático"[5].



PHILOSOPHIÆ
NATURALIS
PRINCIPIA
MATHEMATICA.

Autore JS. NEWTON, Trin. Coll. Cantab. Soc. Matheseos Professore Lucasiano, & Societatis Regalis Sodali.

IMPRIMATUR.
S. PEPYS, Reg. Soc. PRÆSES.
Julii 5. 1686.

LONDINI,
Jussu Societatis Regiæ ac Typis Josephi Streater. Prostat apud plures Bibliopolas. Anno MDCLXXXVII.

"Filosofía Natural. Principios matemáticos"
Isaac Newton

Algunos señalan este punto como la separación definitiva de las "dos culturas" al sentirse los filósofos desbordados por el aspecto técnico que la filosofía natural, o sea, la física, adquirió en adelante. Además cambió el papel de la matemática en sus aplicaciones, ya que ahora también servía para estudiar la evolución de un proceso, es decir, para predecir, y no sólo para describir como hasta entonces. Quizá San Agustín tenía razón juntando a matemáticos y profetas.

Historiak eman dituen matematikari garrantzi eta eragin handienetako bi elkarren atzetik datoz. Leonhard Euler eta Carl Friedrich Gauss. Lehena, Basileako suitzarra, San Petersburgo eta Berlingo Akademietan ari izan zen lanean bizitza osoan eta Argien Mendeko matematikaririk nabarmenena izan zen. Eulerek, matematika hutsari eskaini zion lan ikaragarriaz gain, mekanika newtondarra kalkulu infinitesimalaren hizkeran idatzi zuen, eta solidoen eta fluidoen higidura deskribatzen duten ekuazioak formulatu zituen. Gaussen jarduerak XIX. mendeko lehen erdia bete zuen eta haren lanek matematikaren arlo askotan gailurra jo zuten, horregatik jarri zioten "matematikarien printzea" goitizena. Gainera haren errigorea matematikak laster hartuko zituen bide berriekin ondo bateratu zen.

Bitartean klasiko bihurtu diren liburuak argitaratu ziren Frantzian: Lagrangeren *Mécanique analytique* (1788), lehenengoz mekanika baliabide geometriko barik aurkezten duen lana, Laplaceren *Mécanique céleste* (1799-1819) eta *Théorie analytique des probabilités* (1812), eta Fourieren *Théorie analytique de la chaleur* (1822).

Leonhard Euler (1707-1783)

1789an Iraultza Frantsesa gertatu zen eta historiaren bilakaera berriro aldatu zen. Laster sortu ziren Parisen *École Polytechnique* (1794) "gerrako gauzetarako ingeniariak" prestatzeko, Simón Abrilek zioen moduan, eta *École Normale* (1795), irakasleen formaziorako. Matematikaren irakaskuntza antolaturako eredu izan ziren eta bertako ikastaroetan oinarrituriko testuliburuak idatzi ziren. *Cours d'Analyse de l'École Polytechnique* (1821) delakoan, Augustin Cauchyk analisi matematikoari artean ez zeukan errigorea emateko lana hartu zuen bere gain. XIX. mendean zehar matematikariek errigorearen itzulera hau onartu egin zuten eta behinbetikoa gertatu da. Aro Garaikidea da.

Matematikaren garapena XIX. mendean izugarria izan zen, kantitatez eta kalitatez. Hogei mende baino gehiago pasatu ondoren Euklidesen bosgarren postulatuaren independentzia frogatu zen Nikolai Lobatxevski eta János Bolyairen lanekin (Gaussek ez baitzuen gai honetaz egin zuen lana argitaratu); fisika modernorako hain garrantzizkoak diren geometria ez euklidearrak sortzeko bidea zabaldu zuten, honenbestez. Teoria orokor baten bultzatzaileetako bat Bernhard Riemann bikaina izan zen; honek, gazterik hil arren, gaur arte matematikaren zenbait arlotan garapen iturri izan diren lanak utzi zizkigun.

Erregela eta konpasa bakarrik erabiliz eraiketa bana eskatzen zuten hiru problema klasiko, zirkulua koadratzea, kuboa bikoiztea eta angelua hirutan zatitzea, ebatzi barik heldu ziren grekoen matematikatik XIX. mendera arte eta hirurak ezezko erantzuna hartu zuten mende horretan (zirkuluaren koadratura ezinezkoa da, beraz, “zale” batzuk oraindik lortzeko ahaleginean ari badira ere). Ekuazio algebraikoen erradikalen bidezko ebazpenarekin erlazionaturik daude; teoria hau burutu zutenen artean, oso gazterik hil ziren Niels Henrik Abel eta Evariste Galois aipatu behar ditugu. Azken honen lanetan aurkitzen dira, hain zuzen ere, taldeen teoria modernoaren hastapenak.

Dos de los más grandes e influyentes matemáticos de la historia se sucedieron en el tiempo: Leonhard Euler y Carl Friedrich Gauss. El primero, suizo de Basilea, pasó su vida en las Academias de San Petersburgo y Berlín y fue la figura matemática del Siglo de las Luces. Además de una inmensa labor puramente matemática, Euler puso la mecánica newtoniana en el lenguaje del cálculo infinitesimal y formuló las ecuaciones del movimiento de un sólido y de un fluido. Gauss, cuya actividad matemática llena toda la primera mitad del siglo XIX, fue reconocido en su tiempo como "príncipe de los matemáticos" por sus trabajos en los que se situó en la cumbre de muchas áreas de las matemáticas. Además su rigor se adaptó a los nuevos rumbos por los que pronto se desenvolvió la matemática.

Entretanto en Francia se publicaron libros que se convertirían en grandes clásicos: la *Mécanique analytique* de Lagrange (1788), que presentó por primera vez la mecánica sin recursos geométricos; la *Mécanique céleste* (1799-1819) y la *Théorie analytique des probabilités* (1812) de Laplace; y la *Théorie analytique de la chaleur de Fourier* (1822).

Carl Friederich Gauss (1777-1855)

En 1789 tiene lugar la Revolución Francesa, que cambió de nuevo el curso de la historia. Poco después se crearon en París la *École Polytechnique* (1794) para preparar ingenieros "para las cosas de la guerra" que decía Simón Abril, y la *École Normale* (1795) para la formación de maestros. Fueron un modelo para la enseñanza organizada de las matemáticas y se escribieron libros de texto basados en sus cursos. En el *Cours d'Analyse de l'Ecole Polytechnique* (1821) Augustin Cauchy se impuso la tarea de dar al análisis matemático el rigor que aún no había conseguido. Los matemáticos asumieron a lo largo del siglo XIX esta vuelta al rigor, que ha resultado definitiva. Es la Edad Contemporánea.

El desarrollo de la matemática en el siglo XIX fue enorme, tanto en cantidad como en calidad. Después de más de veinte siglos, se puso de manifiesto la independencia del quinto postulado de Euclides por Nikolai Lobatchevsky y János Bolyai (Gauss nunca publicó sus trabajos sobre este tema), que así abrieron el camino a la creación de las geometrías no euclídeas, tan importantes para la física moderna. Uno de los impulsores de una teoría general fue el genial Bernhard Riemann quien, a pesar de su temprana muerte, dejó publicados varios trabajos que han sido fuente de inspiración desde entonces en diversas áreas de la matemática.

Cuadratura del círculo, duplicación del cubo y trisección del ángulo eran los tres problemas clásicos de construcción con regla y compás que procedentes de la matemática griega llegaron al siglo XIX sin solución; los tres encontraron respuesta negativa en ese siglo (en particular, la cuadratura del círculo es imposible, aunque algunos "aficionados" sigan empeñados en conseguirla). Están relacionados con la resolución de ecuaciones algebraicas por radicales en cuya teoría intervinieron dos matemáticos que murieron muy jóvenes, Niels Henrik Abel y Évariste Galois. En los trabajos de éste aparecen los inicios de la moderna teoría de grupos.

Agustin-Louis Cauchy
(1789-1857)

Bernhard Riemann
(1826-1866)

Karl Weierstrassek eragin handia izan zuen Berlingo katedratik eta orain aurkezten dugun moduko itxura zehatza eman zion analisi matematikoari; gainera, XIX. mendean funtzio konplexuen analisia eratu zuten hiru ikuspuntu osagarrietako bat zor diogu (beste biak Cauchy eta Riemannen eskutik heldu ziren). Aipagarria da, halaber, Georg Cantor, sakon aztertu baitzituen puntuen multzoak eta infinitua objektu matematiko bezala ulertzeko aurrerapenak utzi baitzizkigun.

Sortze lanarekin batera ahalegin handia egin zen matematika argitu eta euskarri sendoetan finkatzeko eta, honen ondorioz, matematikaren oinarrien azterketa sakona bideratu zen. Gaurko matematikaren edukiak eta ibilbidea ulertzeko, XIX. mendea funtsezkoa gertatu zen.

Izen bi ditugu XX. mendeko sarreran beste izen handi askoren ordezkari: Henri Poincaré frantziarra eta David Hilbert alemana. Biak ziren sortzaile handiak eta mende honetan matematikak ibili dituen bideetan eragin handikoak suertatu dira. 1900. urtean Parisen egiri zen Matematikarien Nazioarteko Kongresuan hitzaldi bat eman zuen Hilbertek; bertan, hastear zegoen mendean bere iritziz matematikaren ildoa markatuko zuten hogeita hiru problemak formulatu zituen.

Göttingen hiri txikia munduko gune matematikorik garrantzitsuena izan zen E. mendeko lehen laurdenean Hilberti esker. Ez da harritzekoa Göttingenek mekanika kuantikoaren formulazio matematikoan izan zuen garrantzia. Hilbert arlo askotan nabarmendu zen baina matematikaren eraiketa formalerako proposatu zuen programa, matematikako galdera guztiek axiomen sistemaren barruan erantzuna dutelako ideia, okerra zen: Kurt Godelek 1931n argitaratu zuen osotasunik ezaren teoremak dioenez, edozein axioma sistema finituk proposizio erabakiezinak ditu, hau da, proposizio batzuk egia ala gezurra diren erabakitzea ezinezkoa da sistemaren barruan.

Esan ohi da Hilbert eta Poincaré izan zirela matematikaren arlo guztiak ezagutzen azkenak. Esaldia hitzez hitz hartu zein ez, egia da E. mendeko matematikak espezializazio handiko bidea hartu zuela eta arlo bakoitza sakonago aztertzera eroan duen arren, norberarenak ez diren arlo gehienetatik urruntzea ere ekarri duela. Horregatik matematikaren historia orokorrak Bigarren Mundu Gerrara heldu baino lehen amaitzen dute kontakizuna eta lan berezien esku uzten dute jarraipena.

Bigarren Mundu Gerrak historiaren bilakaera aldatu egin zuen eta matematikaren gainean ere eragin zuen. Ordura arteko nagusitasuna Frantzia eta Alemaniaren artean banatu bazen, Europaren erdialdeko zientifikoen emigrazioak Estatu Batuetara eraman zuen lehen aldiz eragin gunea, eta politikan bezala matematikan ere Soviet Batasunarekin batera indar nagusiak izan ziren. Azken honen desagerpenak matematikarien beste emigrazio uhin bat ekarri du


Henri Poincaré (1854-1912)


David Hilbert (1862-1943)

Karl Weierstrass desde su influyente cátedra de Berlín dio al análisis matemático la forma rigurosa en que hoy lo presentamos; es, además, responsable de uno de los tres puntos de vista complementarios (los otros dos son debidos a Cauchy y Riemann) que formaron en el siglo XIX el análisis de funciones complejas. También es digno de mención Georg Cantor, que estudió en profundidad los conjuntos de puntos y avanzó en la comprensión del infinito como objeto matemático.

El trabajo de creación llevó aparejado un amplio esfuerzo que, con objeto de clarificar y dar bases firmes a la matemática, condujo a un estudio profundo de sus fundamentos. El siglo XIX resulta crucial para entender la matemática de hoy, tanto en sus contenidos como en su trayectoria.

La entrada al siglo XX viene representada por dos nombres que sobresalen entre otros grandes: el francés Henri Poincaré y el alemán David Hilbert. Ambos fueron grandes creadores e influyeron fuertemente en los caminos de la matemática de este siglo. En 1900, Hilbert pronunció una conferencia en el Congreso Internacional de Matemáticos celebrado en París en la que propuso los que a su juicio eran los veintitrés problemas que iban a marcar el interés de la matemática en el siglo que entraba.

La pequeña ciudad alemana de Gotinga se convirtió, gracias a Hilbert, en el principal centro matemático del mundo del primer cuarto del siglo XX. No es de extrañar que Gotinga tuviese un importante papel en la formulación matemática de la mecánica cuántica. Hilbert destacó en muchos aspectos, pero su programa de construcción formal de la matemática, su idea de que todo problema matemático tiene una respuesta dentro del sistema axiomático, resultó no ser acertada: el teorema de incompletitud que Kurt Godel publicó en 1931 afirma que en todo sistema finito de axiomas existen proposiciones indecidibles, es decir, proposiciones cuya validez o refutación no se pueden decidir dentro del sistema.

Se suele decir que Poincaré y Hilbert fueron los últimos en conocer todas las ramas de la matemática. Tomada la frase en sentido literal o no, lo cierto es que la matemática del siglo XX entró en un proceso de fuerte especialización que ha llevado a estudiar cada área con mayor profundidad pero también a alejar a los matemáticos de la mayor parte de las áreas ajenas. Es por ello que las historias generales de la matemática terminan su relato antes de la Segunda Guerra Mundial y suelen dejar a trabajos especializados la continuación.

La Segunda Guerra Mundial cambió el curso de la historia y tuvo sus efectos sobre la matemática. Si hasta entonces la hegemonía se la repartían entre Francia y Alemania, la emigración de científicos centroeuropeos trasladó por primera vez el centro de acción a Estados Unidos, que junto con la Unión Soviética se convirtieron en los países poderosos también en matemáticas. La desaparición de esta última ha traído recientemente una nueva ola de emigración de oraintsu. Dena dela, "globalizazio" egoera batean gaude, orain esaten den moduan, eta komunikatzeko erraztasunak matematika munduko ia edozein lekutan burutzea ahalbidetzen du.

Beste alde batetik, ordenadoreek garrantzi handiko egitekoa izan dute mendearen bigarren zatiko jarduera matematikoan. Eraikitzeko behar izan zen ikerketa "gerraren gauzek" bultzatu zuten baina azken ean bizitzaren alde guztietara sartu zaizkigu. Ordenadoreek posible egin dute kalkulu izugarri luzeak denbora errealean ematea, matematikaren aplikazio praktikoen eremua asko handituz; eurekin dakartzaten zenbakizko metodoen azterketa helburu duten matematikaren arloak ezinbestean garatu dira.

Cervantes, Shakespeare, Molière, Goethe, Proust, Joyce edo García Lorca literaturarako, eta Vivaldi, Bach, Mozart, Beethoven edo Wagner musikarako direnaren parekoak dira aipatu ditudan pertsonaiak. Haien izenak behintzat, zenbat pertsona kultok ezagutzen ditu?

2. Matematika erabilgarria da

Askorentzat matematikariak lan gogor batean ari dira, helburua lortzeko ahalegin handia eskatzen duena eta helburu honek, azken batean, ez du ezertarako balio. Antzeko zerbait nabarituko zuen Lionel Terray frantziar alpinista ezagunak eskaladak egin eta gero, hirurogeiko hamarkadan *Ies conquérants de l'inutile (Alferrikakoaren konkistatzaileak)* izeneko liburua idatzi zuenean. Beti pentsatu dut matematikariei buruzko liburua izan behar zuela.

Matematikaren baliagarritasuna defenditzeko Simón Abrilen hitzetara joan gintezke berriro eta esan matematikak benetan burua formatzeko eta antolatzeko balio badu, erabilgarritasun nahikoa duela. Izan ere, Platonentzat ezagutzea zen zientziaren benetako balioa eta arrunta iruditzen zitzaion "merkataritzako helburuak" zituena. "Naturaren azterketa sakona da aurkikuntza matematikoen iturri nagusia"[(6)] idatzi zuen Fourierek XIX. mendean, zehaztugabeko galderak alboan utzi eta funtsezko elementuak erakusten dituelakoan. Abel eta Jacobi kritikatu egin zituen beroaren hedapena aztertzeari ez ekitearren eta Jacobik iritzi horrekiko bere desadostasuna adierazi zuen Legendreri idatzitako eskutitz batean (1830)[(7)]:

> "Egia da M. Fourierek uste zuela matematikaren helburu nagusia erabilera publikoa eta naturaren fenomenoen azalpena dela, baina bera zen moduko filosofo batek jakin beharko zuen zientziaren helburu bakarra giza izpirituaren ohorea dela eta, honen izenean, zen bakiei buruzko kontu batek munduaren sistemari buruzko beste batek adina balio duela".

Ez du inolako zentzurik matematika hutsa eta matematika aplikatua entitate bananduak bailiran aurkeztea -ez baitaude bananduta- eta aurkako interesak bailituzten. Armand Borelek erabiltzen duen irudiarekin gelditzen naiz: matematika iceberg baten modukoa da, uretik kanpo ikusgai dagoen zatia aplikazioen matematika da eta murgilduta dagoena, ikustezina gehienentzat, matematika teorikoa; hau kenduz gero, bestea desagertu egiten da[8].

Matematika erabilgarria da eta bera barik ezinezkoa izango zen bizi garen mundu teknologikoaren garapena eta ulermena. Ez du honek esan gura, hala ere, rnatematika osoak duela erabilera praktikoa, ez eta matematikan (edo beste zientzietan) egiten den oinarrizko ikerketaren helburu bakarra aplikatu bihurtzean datzala, lortu arte porrota izango bailitzan.

Edozein modutan, atal honetarako dudan helburua ez da matematika teorikoaren defentsa egitea, icebergaren kanpoaldeko alderdi batzuk erakustea baizik, matematikak mundu errealean dituen zenbait apl ikazio aurkeztuz.

matemáticos. Con todo, asistimos en este momento a un fenómeno de "globalización", como ahora se dice, en el que la facilidad de comunicación permite desarrollar la actividad matemática en casi cualquier lugar del mundo.

Por otra parte, los ordenadores han tenido un papel importante en el trabajo matemático de la segunda mitad del siglo. También "las cosas de la guerra" impulsaron la investigación necesaria para su construcción pero han acabado por estar presentes en todos los aspectos de nuestra vida. Los ordenadores han hecho posible realizar enormes cálculos en tiempo real, abriendo un gran campo de aplicaciones prácticas para las matemáticas, lo que ha traído consigo el desarrollo de las áreas de éstas destinadas al estudio de los métodos numéricos asociados.

Los personajes que he citado son lo que Cervantes, Shakespeare, Molière, Goethe, Proust, Joyce o García Lorca son para la literatura, lo que Vivaldi, Bach, Mozart, Beethoven o Wagner son para la música; ¿cuántas personas cultas conocen al menos sus nombres?

2. La matemática es útil

Mucha gente ve a los matemáticos como personas dedicadas a una actividad dura, que requiere un gran esfuerzo para conseguir un objetivo que, en realidad, no sirve para nada. Algo así debió de percibir tras sus escaladas Lionel Terray, famoso alpinista francés, que escribió en los años sesenta un libro titulado *les conquérants de l'inutile (los conquistadores de lo inútil)*. Yo siempre pensé que ese libro tenía que tratar sobre matemáticos.

Para defender la utilidad de las matemáticas podríamos recurrir de nuevo a las palabras de Simón Abril y decir que si realmente sirven para una mejor formación y organización de la mente, ya es suficiente utilidad. De hecho, para Platón el conocimiento era el auténtico valor de la ciencia y consideraba vulgar a la que tenía "fines mercantiles". En el siglo XIX encontramos a Fourier diciendo que "el estudio profundo de la Naturaleza es la fuente más fecunda de los descubrimientos matemáticos"[(6)] porque permite excluir las cuestiones vagas y descubrir los elementos esenciales; habiendo criticado a Abel y a Jacobi por no dedicarse a estudiar la propagación del calor, éste último mostró su desacuerdo en una carta a Legendre (1830)[(7)]:

> "Es verdad que M. Fourier opinaba que el objeto principal de las matemáticas era la utilidad pública y la explicación de los fenómenos naturales, pero un filósofo como él debería haber sabido que el fin único de la ciencia es el honor del espíritu humano y que, por este motivo, una cuestión de números vale tanto como una cuestión sobre el sistema del mundo".

No tiene sentido presentar a la matemática pura y la matemática aplicada como entidades separadas -que no lo están- y con intereses en frentados. Me quedo con la imagen que utiliza Armand Borel al decir que la matemática es como un iceberg, cuya parte emergida y visible es la matemática de las aplicaciones y cuya parte sumergida, oculta para la mayoría, es la matemática teórica; si prescindimos de ésta, la otra desaparece[(8)].

La matemática es útil y sin ella no sería posible ni el desarrollo ni la comprensión del mundo tecnológico en que vivimos. Pero esto no quiere decir que toda la matemática tenga una utilidad práctica ni mucho menos, ni tampoco que el único objeto de la investigación básica en matemáticas (o en otras ciencias) sea el de convertirse en aplicada, de modo que es una actividad fracasada hasta que lo consiga.

Pero en realidad mi objetivo en esta parte no es tanto defender la matemática teórica como hablar de algunos aspectos de la parte emergente del iceberg, de las aplicaciones de la matemática al mundo real.

Matematika hasieratik dago munduaren azalpen bati lotuta. Dela zeruen deskripabena dela Lurrarena, biak izan ziren antzinako zibil izazioen helburu eta zenbakiak eta geometria arazo praktikoetarako erabili ziren. Kalkulu infinitesimalaren sorrerak ate ugari ireki zituen, fenomeno naturalez arduratzen diren zientzietan matematizazio handia eraginez. Benetan harrigarria da errealitate konplexua abstrakzio mota erraz samar batera bideratu izana eta kalkuluak aurresaten duena errealitatearekin bat etortzea hain modu zehatzean. Eugene Wigner fisikariak oso ezagun egin den artikulu bat argitaratu zuen 1960an, *Matematikaren arrazoitu ezineko eraginkortasuna naturaren zientzietan*[9] izenburupean, eta hau irakur daiteke bertan: “matematikaren izugarrizko erabilgarritasuna naturaren zientzietan [fisika barne, jakina] misterioaren mugan dago eta ez du azalpen arrazionalik" eta "matematikaren hizkera fisikaren legeen formulazioetara egokitzearen miraria opari liluragarria da, ez dugu ulertzen eta ez dugu merezi". Baina hor dago, badakigu zelan erabili eta zer egin dezakegun berarekin, arrakastaren zergatia magikoa dirudien arren.

Gutxi-asko, denek onartzen diote matematikari aipatu berri dudan erabilera hori. Baina ezagutzen ez dutenek uste izaten dute, eguneroko bizitzan matematika elementalak duen praktikotasuna alde batera utzita, aplikazio interesgarri bakarrak naturaren zientzietako eredu horiek direla. Horregatik bestelako erabilerak aukeratu ditut aurkezpen honetarako: medikuntzaren irudiak eta finantzen mundua.

Esaten da hitzaldi matematiko guztietan teorema bat sartu behar dela. Ez dut hutsik egingo eta teorema bat erakutsiko dizuet. Ez da oso teorema ezaguna, baina neuri ederra iruditzen zait, matematikan ere edertasunaren inguruko iritziak beti pertsonalak direla onartuta, jakina. Bohemian jaio eta Vienan lan egin zuen Johann Radon matematikariari zor diogu, 1917an argitaratu zen, eta honela dio: *planoan definiturikofuntzio bat lerrozuzen guztien gainean egindako integralen bitartez erabat berreskuratzen da*. Matematikariok dugun berbaera berezi honek jokoz kanpo utziko zuen bat baino gehiago, esandakoa ulertu ezinik. Adibide erraz bat emango dut jarraipena ulertzeko nahikoa izango delakoan.

